



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruñean, 2000ko irailaren 4an

67 ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru Lege Proiektuak:

- Foru Lege proiektua, Zahar-etxeetako egonaldiak finantzatzeko erabiltzaileek ordaindu beharrekoa arautzen duena ([2. or.](#)).
- Garapenaren aldeko lankidetzari buruzko Foru Lege proiektua ([7. or.](#)).
- Foru Lege proiektua, Irunberriko Udalaren herri lurretako 81.937 metro koadro onura publikokoak direla deklaratu eta horien desafektazioa onesten duena ([15. or.](#)).
- Foru Lege Proiektua, Sarriquirengo udalez gaindiko planeamendu sektorialak ukituriko eremua urbanizatu eta eraikitzeko prozesua arautzen duena ([17. or.](#)).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Zahar-etxeetako egonaldiak finantzatzeko erabiltzaileek ordaindu beharrekoa arautzen duena

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko abuztuaren 28an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Foru Diputazioak, 2000ko ekainaren 12an hartutako erabakiaren bidez, Zahar-etxeetako egonaldiak finantzatzeko erabiltzaileek ordaindu beharrekoa arautzen duen Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarra entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehenena.- Zahar-etxeetako egonaldiak finantzatzeko erabiltzaileek ordaindu beharrekoa arautzen duen Foru Lege proiektua ohiko jardunbidez bideratzea.

Bigarrena.- Proiektu hartaz Irizpena emateko ahalmena Gizarte Gaietako Batzordearen esku uztea.

Hirugarrena.- Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epea irekiko da, 2000ko irailaren 22ko eguerdiko hamabietan** bukatuko dena. Epe horretan, Erregelamenduko 126. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko Taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dizkiote proiektuari.”

Iruñean, 2000ko abuztuaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proiektua, Zahar-etxeetako egonaldiak finantzatzeko erabiltzaileek ordaindu beharrekoa arautzen duena

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 44. artikulua ezartzen duenez, Nafarroak eskumen eskusiboa du gizarte laguntzako gaietan, orokorrean, eta, berariaz, adinekoen arloko gaietan.

Aipatu legeko 40. artikulua ezartzen du Foru Komunitateak, eskumen eskusiboa duen gaietan, legeak emateko ahalmena duela, besteak beste.

Legeak emateko ahalmen hori erabili eta Gizarte Zerbitzuei buruzko martxoaren 30eko 14/1983 Foru Legea onetsi zen; lege horretako 13. artikulua xedatzen du dirusarreraren barrenean sartuko direla erabiltzaileek zerbitzuengatik ordaindu beharreko tasa edo tarifak, zeinak erregelamendu bidez ezarriko baitira.

Halaber, Nafarroako Plan Gerontologikoak –Nafarroako Parlamentuak 1997ko ekainaren 3an onetsi zuen–, garatu beharreko beste neurri batzuez gain, hurrengo ere hartzen zuen kontuan: zahar-etxeetako zerbitzuak erabiltzen zituzten pertsonen parte hartu behar zutela haiek finantzatzen, betiere erabiltzaileen baliabide ekonomikoaren arabera, hala agintzen baitute gizarte justizia eta aberastasunaren banaketa ekitatezkoak, eta parte-hartze hori arautu beharra zegoela.

Horrela, foru lege honetan agertzen dira, bate-tik, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren zahar-etxeetako nahiz administrazio horrekin itundutako zahar-etxeetako erabiltzaileek ordaindu beharrekoa, eta, bestetik, aipatu administrazio-

ak erabiltzaileei administrazioaz besteko zahar-etxe bateko egonaldiak ordaindu ahal izan ditzaten emaniko prestazio ekonomikoak.

Itunpeko zahar-etxetzat hartuko dira, Gizarte Zerbitzuen arloko Itunei buruzko urriaren 25eko 20/1985 Foru Legearen 3. artikuluekin bat, bai kudeaketa itundua duten Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren zahar-etxeak, bai administrazioaz besteko zahar-etxeetan itun bidez erreserbatuta dauden plazak.

Horrenbestez, foru lege honetan, administrazioaz besteko zahar-etxetzat hartuko dira Foru Komunitateko administrazioarenak ez diren zahar-etxeak eta zahar-etxe horietan itundu gabe dauden plazak.

Orobat, foru lege honek espresuki aitortzen du zuzenbide publikoko dirusarrera direla Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak ezarritako prezioak; hori bat dator Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren Erakunde Autonomoen Tasa, Ordainarazpen Parafiskal eta Prezioei buruzko testu artikulatua onetsi zuen uztailaren 24ko 144/1987 Foru Dekretu Legegileak ezarritakoarekin; arau horrek ezartzen du prezioztat hartuko dela aipatu institutuak emaniko laguntza-zerbitzuengatik kontraprestazioa.

Prezio horiek, ondorioz, Nafarroako Foru Ogasun Publikoaren eskubide ekonomikoak dira; hala ezartzen du Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeak. Ogasun Publikoak, beraz, lege ezarritako prerrogatibak ditu, eta, behar izanez gero, kasuan kasuko administrazio prozedurak erabiliko ditu.

Legeak badu berria den alderdi bat: Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari itzuli egin behar zaizkio hark administrazioaz besteko zahar-etxeetako erabiltzaileei emaniko diru kopuruak, zahar-etxe horietan jasotako zerbitzuak ordaintzeko diru kopuruak alegia; itzulketa horiek ere zuzenbide publikoko dirusarreratzat hartuko dira.

Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutua erakunde autonomoaren tarifa edo prezioei buruzko orain arteko araudia ikusita, lege hau garrantzitsua da; izan ere, ezartzen du berme pertsonal edota errealak eratu behar direla prezioen kobrantza bermatzeko edo emaniko prestazio ekonomikoen itzulketa bermatzeko; berme errealak, betiere, erabiltzailearen ondasunekin bakarrik eratu ahalko dira. Hala ere, erabiltzaileak ezin duela bermerik eratu frogatuz gero, ezin izanen zaio, inola ere, zerbitzua ukatu.

Bermea etxebizitza bada, eta haren bidez betearazi nahi bada zorra, betearazpena eten egi-

nen da, hurrengo arrazoietakoren bat dela medio: etxebizitza beharrezkoa bada bizitzeko zahar-etxea utzi delako, ezkontidearen edo beste familia-unitaterik osatzen ez duten seme-alaben bizitoki bakarra bada, edota beste norbaitena –pertsona horien beharra Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak aztertu beharko du.

Azpmarratu beharreko beste alderdi garrantzitsu bat da Legeak egonaldiko gehienezko prezio batzuk ezartzen dituela zahar-etxe motaren arabera. Prezio horiek zerbitzuen benetako kostua baino merkeagoak dira, baina zahar-etxeetako prezioek –urtero ezartzen ditu Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak: arau honek ematen dio horretarako baimena– ezin izanen dituzte gainditu foru lege honetan ezarritako gehienezko prezioak.

Horrela, bermatuta dago Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren zahar-etxeak nahiz itunpeko zahar-etxeak erabiltzen dituzten pertsonen egonaldiaren truke ordaindu beharrezkoa, edota hori dela-eta eginiko zorra, ez dela foru lege honetan ezarritakoa baino gehiago izanen. Prezio hauek, halaber, administrazioaz besteko zahar-etxeetan egoteagatik prestazio ekonomikoen gehienezko muga ere izanen dira.

ATARIKO TITULUA

Xedapen orokorrak

1. artikulua. Helburua.

Foru lege honen helburua da arautzea, batetik, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren zahar-etxeetako nahiz administrazio horrekin itundutako zahar-etxeetako erabiltzaileek ordaindu beharrezkoa, eta, bestetik, aipatu administrazioak erabiltzaileei beste zahar-etxe bateko egonaldiak ordaindu ahal izan ditzaten emaniko prestazio ekonomikoak.

Lege honetan, administrazioaz besteko zahar-etxetzat hartuko dira, hala Nafarroako Foru Komunitateko administrazioarenak ez direnak, nola administrazio horrekin itunik ez dutenak.

2. artikulua. Ordaintzeko beharra duten pertsonen ahalmen ekonomikoa ezartzea.

Foru lege honetan, hurrengo arabera kalkulatu da ahalmen ekonomikoa: errenta, ondarea, familia-unitatea osatzen duten pertsona kopurua.

Errentatzat hartuko dira familia-unitateak hurrengoak direla-eta dituen dirusarrera guztiak:

Laneko etekinak; hor sartuko dira, baita ere, pentsioak eta gizarte-aurreikuspeneko prestazioak, edozein dela ere haien araubidea.

Kapital higigarri eta higiezinaren etekinak.

Enpresa edo lanbide bateko etekinak.

Ondareztat hurrengo hau hartuko da: erabiltzailearen kapital higigarri eta higiezin guztia, prestazioa jasotzen hasi aurreko bost urtetatik aurrera. Horren balioa neurtzeko, Ondarearen gaineko Zergarako ezarritako arauak erabiliko dira.

Kapital higigarritzat hauek hartuko dira: kontu korronteko eta eperako gordailuak, inbertsio eta pentsio funtsak, balore higigarriak, bizitza aseguruak eta aldi baterako edo biziarteko errentak, artelanak, antzinako gauzak, bitxiak eta bestelako gauza baliodunak.

Kapital higieztintzat, aldiz, hurrengoak hartuko dira: landa-lurreko ondasunak eta hiri-lurreko ondasunak.

Familia-unitatetzat hartuko da Pertsona Fisiko-en Errentaren gaineko Zerga erregulatzen duten arauetan zehaztu bezala eskatzailea partaide deneko hura.

Ahalmen ekonomikoari buruzko datuak faltsutu edo ezkutatu gero, zerbitzua aldi baterako edo behin betikoz eten ahalko da.

LEHENBIZIKO TITULUA

Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren zahar-etxeetako eta itunpeko zahar-etxeetako erabiltzaileek ordaindu beharrekoa

3. artikulua. Prezioak publikoak dira.

Zuzenbide publikoko dirusarreratzat hartuko dira Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak bere zahar-etxeetan eta beste batzuekin itundutako plazetan ezarritako prezioak.

4. artikulua. Gehienezko prezioak.

Prezioa ezartzeko, kontuan hartuko dira bai zuzeneko kostuak, bai kostu orokorren ehuneko jakin bat, dagokiona. Kostu orokorrak dira, adibidez, langile-gastuak, material eta kontserbazio-gastuak, finantza-kargak, zuzeneko zerikusia duten instalazioen amortizazioa, eta administrazio-gastuak.

Prezio horiek merkatu-prezioak izan daitezela saiatu behar da; betiere, horretarako aukera ematen badute Nafarroako Foru Komunitateko egoera ekonomiko orokorrak bai eta errenten nahiz erretiro-pentsioen mailak ere.

Nolanahi ere, zahar-etxeetan, egonaldiko gehienezko prezioak, hileko, hurrengoak dira:

Zahar-etxea:

Gauza den batentzako plaza: lanbide arteko gutxieneko hileko soldataren halako 1,5.

Laguntza behar duen batentzako plaza: lanbide arteko gutxieneko hileko soldataren halako 2,5.

Eguneko etxea: lanbide arteko gutxieneko hileko soldata.

5. artikulua. Prezioa ezarri, kudeatu eta kitatzeko erakunde eskuduna.

Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuari dagokio prezioa ezarri, kudeatu eta kitatzea.

Zerbitzua itunpean ematen duten entitateei eskuordetu ahal zaie kudeatzea eta kitatzea.

Aurreko hori guztia, hala ere, ez da eragozpen izanen Ekonomi eta Ogasun Departamentuak erabili ahal izan ditzan bereak dituen ahalmenak.

6. artikulua. Pertsona bakoitzak hilean ordaindu beharrekoa zehaztea.

Zahar-etxean sartu aurretik, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak ebazpen bidez zehaztuko du erabiltzaile bakoitzak zenbat ordaindu behar duen hilean. Hori erabakitzeko, kontuan hartuko dira, 2. artikuluaaren arabera, errenta, kapital higigarria eta familia-unitatea osatzen duen pertsona-kopurua.

7. artikulua. Erabiltzaileen betebeharrak ekonomikoak.

Hilean ordaindu beharrekoarekin ez badute erabiltzaileek hileko prezio guztia ordaintzen, zorra egingen dute Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuarekin; zorraren zenbatekoa, hain zuzen ere, honakoa izanen da: erabiltzaileak ordaindutakoaren eta Institutuak bere zahar-etxe-etarako edo itunpekoetarako ezarritako prezioaren arteko aldea.

Zor hori ordainduko dela ziurtatzeko, erabiltzaileei eskatuko zaie berme pertsonal edo errealak eratzeari; horretarako, zuzenbideak ezarritako edozein bide erabili ahalko da. Bermea eratzeko ondarea kalkulatu eta zenbateko bat salbuetsi egingen da; hain zuzen ere, bermea eratzeari, lanbide arteko gutxieneko soldataren halako zortzi egiten duen zenbatekoa.

Berme horiek, aldian aldian, berrikusi egin ahalko ditu administrazioak, bai bere kabuz, bai norbaitek hala eskatuta.

BIGARREN TITULUA

Administrazioaz besteko zahar-etxeetako erabiltzaileentzako prestazio ekonomikoak

8. artikulua. Prestazio kontzeptua.

Foru lege honetan, prestazio ekonomikoak dira administrazioaz besteko zahar-etxeetako erabilt-

zaileei etxe horietan jasotako zerbitzuak ordaintzeko Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak emaniko zenbatekoak.

Zenbateko horiek foru lege honetan ezarritako moduan itzuli beharko dira; itzulketa horiek zuzenbide publikoko dirusarreratzat hartuko dira.

9. artikulua. Prestazio ekonomikoa zehaztea.

Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuari dagokio erabiltzaile bakoitzari egin beharreko prestazioaren zenbatekoa zehaztea.

Hilean egin beharreko prestazioaren zenbatekoa zehazteko, kontuan hartuko da erabiltzaileak benetan ordaindutakoaren –artikulu honetako hirugarren idatz-zatiaren arabera kalkulatu da– eta foru lege honek 4. artikuluko hirugarren idatz-zatian ezarritako gehienezko prezioaren arteko aldea. Prestazio hori ez da, inola ere, lanbide arteko gutxieneko hileko soldataren halako 1,6 baino gehiagokoa izanen, laguntza behar duen batentzako plaza denean, eta, gauza den batentzako plaza denean, berriz, ez da izanen lanbide arteko gutxieneko hileko soldataren halako 0,7 baino gehiagokoa.

Jasotzen dituen zerbitzuen truke erabiltzaileak ordain ditzakeenak kalkulatzeko, hurrengoak erabiliko dira: errenta, kapital higigarria eta familia-unitatea osatzen duen pertsona-kopurua.

10. artikulua. Prestazioa jasotzen duten pertsonen betebeharrak ekonomikoak.

Prestazioa jasotzen duten pertsonen hurrengo zenbatekoa itzuli beharko diote, lege honetan ezarritako moduan, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuari: erabiltzaileak ordaindutakoaren eta Institutuak bere zahar-etxeetarako nahiz itunpekoetarako ezarritako prezioaren arteko aldea. Prestazioaren gainerako zenbatekoa, beraz, ez da itzuli beharko.

Itzulketa hori ordainduko dela ziurtatzeko, erabiltzaileei eskatuko zaie berme pertsonal edo erreala eratzeko; horretarako, zuzenbideak ezarritako edozein bide erabili ahalko da. Bermea eratzeko ondarea kalkulatu eta zenbateko bat salbuetsi egingen da; hain zuzen ere, lanbide arteko gutxieneko hileko soldataren halako zortzi egiten duen zenbatekoa.

Berme horiek, aldian aldian, berrikusi egin ahalko ditu administrazioak, bai bere kabuz, bai norbaitek hala eskatuta.

HIRUGARREN TITULUA **Kudeaketa arauak**

11. artikulua. Ordaindu beharrean dauden pertsonak.

Tarifa ordaindu beharko dute, bai eta, behar izanez gero, eginiko zorra ordaindu ere, administrazioaren zahar-etxeak nahiz itunpeko zahar-etxeak erabiltzen dituzten pertsonak; halaber, prestazio ekonomikoak jaso dituztenek prestazio horiek itzuli beharko dituzte.

Epaileek pertsona baten ezintasuna deklaratu gero, legezko ordezkariak egingen du ordainketa edo itzulketa, eta, horretarako, pertsona horren ondarea erabiliko du.

12. artikulua. Prestazioa jasotzen duten pertsonen betebeharrak.

Zahar-etxeen erabiltzaileek eta prestazioak jasotzen dituztenek, edo, beharrezkoa bada, horien legezko ordezkariak, hurrengo berri eman behar diote, gertatu eta hogeita hamar eguneko epean, organo kudeatzaileari: errentak, ondareak edo familia-unitatea osatzen duen pertsona-kopurua izaniko edozein gorabehera, eta, orobat, erabiltzaile bakoitzak ordaindu beharrekoa zehaztean eragina izan dezakeen beste edozein gorabehera.

13. artikulua. Ordainketak eta prestazioak berrikustea.

Organo kudeatzaileak berrikusi egin beharko du erabiltzaile bakoitzak hilean ordaintzen duena, bai eta erabiltzaile bakoitzarentzako ezarritako prestazioak ere, baldin eta ordainketan eta prestazioetan aldaketak eragin ditzakeen baldintza- edo egoera-aldaketaren bat gertatzen bada. Berrikus-te hori bere kabuz egin dezake organo kudeatzaileak edota hala eskatzen badiote pertsona onuradunak edo haren ordezkariak.

14. artikulua. Zorra jakinaraztea.

Urtero jakinaraziko zaio erabiltzaileari edo haren tutoreari zorrak, bateratuta, zenbat egiten duen, eta hark, bere borondatez, noiznahi ordain dezake zor osoa nahiz parte bat.

Eginiko zorrak ez dute, inola ere, korriturik sorraraziko.

15. artikulua. Gastua ordaintzea.

Bermeak eratzeko sorrarazten dituen gastuak, orokorrean, pertsona zordunak ordaindu beharko ditu.

16. artikulua. Zorra eskatzea.

Edozein arrazoi dela medio zerbitzua emateari utzi eta orduan eskatu ahalko zaie zorra zor bate-

ratua duten erabiltzaileei, edo, baita ere, zorrak bermeak gainditzen dituenen.

Ordaindu gabeko zorra zuzenbide publikoko dirusarreratzat hartuko da, eta dirubilketarako ezarritako prozedura orokorren bidez eskatuko, premiamendu bidea barne.

Aurrekoen arabera, erabiltzailearen ondareen bidez betearazi behar bada zorra, betearazte hori ez da etxebizitzaren bidez eginen, baldin eta etxebizitza hori norberak beharrezkoa badu bizitzeko zahar-etxea utzi duelako.

Betearaztea, orobat, eten eginen da, baldin eta ezkontidearen edo beste familia-unitaterik osatzen ez duten seme-alaben bizitoki bakarra bada, edota beste norbaitena –pertsona horien beharra Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak aztertu beharko du.

Eten hori, hala ere, ez da eragozpen izanen etxebizitza bahitzeko.

17. artikulua. Arau osagarriak.

Foru lege honek espresuki ezartzen ez dituenetarako, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legea joko da, eta aplikatu beharreko gainerako arauetara.

18. artikulua. Preskripzioa.

Aurreko artikuluan ezarritakoa gorabehera, ordaindu gabeko zorrak eskatzeko preskripzio epea hona noiz hasiko den: edozein arrazoi dela medio zerbitzua emateari uzten zaionean, edo zorrak bermeak gainditzen dituenen.

Preskripzio epean zehar, kaudimengabezia deklaratu ahalko da behin-behinekoz, gabezia hori badela frogatzen bada; zorra behin betikoz izanen da kobraezina, baldin eta ez bada krediturik berreskuratzen preskripzioa amaitzeko gelditzen den epean.

Xedapen gehigarriak

Lehenbizikoa. Foru lege honek Lanbide Arteko Gutxieneko Soldata aipatzen duen guztietan, besterik esaten ez bada, ulertuko da aplikatzean soldata horrek duen hileko balioaz ari dela.

Bigarrena. Udalen zahar-etxeek, edo irabazi-asmorik gabekoek, dirulaguntzak jaso ahalko dituzte salbuespen gisa; dirulaguntza horiek hurrengoan arteko aldea berdintzeko izanen dira: erabiltzaile bakoitzak ordaindutakoa gehi laguntza ekonomikoa, batetik, eta, bestetik, arau honetan ezarritako gehienezko prezioa edo, hori baino merkeagoa bada, plazaren prezioa.

Hirugarrena. Aldi bateko egonaldiako tokia eskatzen duten pertsonak –gehienez ere, hiru hileko egonaldia, urtebeteko epe naturalean– ez dute foru lege honek ezarritako bermerik eratu beharko; hala ere, hori ez da eragozpen izanen egonaldia ordaindu behar izateko.

Xedapen indargabetzailea

Indarrak gabe geldituko dira foru lege honi kontra egiten dioten maila berdineko edo txikiagoko xedapen guztiak.

Azken xedapenak

Lehenbizikoa. Foru lege honetan ezarritako bermeak, behar izanez gero, administrazioaren zahar-etxeen nahiz itunpeko zahar-etxeen erabiltzaileek eratu beharko dituzte, bai eta prestazio ekonomikoak jasotzen dituzten pertsonak ere; egitimo zorraren ordainketa, horrela, sartzan direnetik ziurtatuko da.

Bigarrena. Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen zaio, behar adina xedapen eman dezan foru lege hau garatu eta betearazteko.

Hirugarrena. Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean har-

Garapenaren aldeko lankidetzari buruzko Foru Lege proiektua

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko abuztuaren 28an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Foru Diputazioak, 2000ko ekainaren 19an hartutako erabakiaren bidez, Garapenaren aldeko lankidetzari buruzko Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzara entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehena.- Garapenaren aldeko lankidetzari buruzko Foru Lege proiektua ohiko jardunbidez bideratzea.

Bigarrena.- Proiektu hartaz Irizpena emateko ahalmena Gizarte Galetako Batzordearen esku uztea.

Hirugarrena.- Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epea irekiko da, 2000ko irailaren 22ko eguerdiko hamabietan** bukatuko dena. Epe horretan, Erregelamenduko 126. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko Taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proiektuari.”

Iruñean, 2000ko abuztuaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Garapenaren aldeko lankidetzari buruzko Foru Lege proiektua

ZIOEN AZALPENA

Gaurko munduan jendetza handia bizi da pobrezia latzaren eta giza sufrimenduaren pean. Nazio Batuen Garapen Programa (NBGP) aspalditik ari da salatzen pobrezia funtsa ez dela huts-hutsik behar adinako dirusarrerarik ez izatea, baizik eta horrez gain gizakiarentzat funtsezko diren aukerak eta paradak falta izatea: eskola eskasa hartzea, osasun zerbitzuak erdietsi ezina eta giza eskubide politikoak erabiltzeko debekua. Pobreziatik heldu diren halako problema askok, gainera, ez dute mugarik ezagutzen: ingurugiroa-

ren endekatzea, migrazioak, estupefazianteak produzitu, banatu eta kontsumitzea edo zenbait izurrite.

Gertaera horiei erantzun beharrez, Nazioarteko aspaldi baditu abiatu garapenaren aldeko lankidetzari nazioartekoa bultzatzeko politikak eta planak, bi osagaien inguruan eratuak: batetik, herri horiei finantza baliabideak helaraztea, garapenerako laguntza ofizial gisa Produktu Nazional Gordinareneko % 0,7ko kuota emanez, desiratzekoa den bezala; eta bestetik, giza garapena bultzatzea (pertsonen gizarte jakin batean dituzten aukera eta paradak berretzeko prozesua: bizialdi luze osasuntsua izatea, norbere burua ezagupenez janztea, bizi maila itxurazkoa izateko baliabideak erdiestea, libertate politiko, ekonomiko eta sozialak bere esku izatea, sortzaile eta emankor izateko aukera izatea, norbere buruaren errespetua eta giza eskubide bermatuak izateko). Horrekin guztiarekin, eurt eragin nahi zaio pobreak bazterratzeko joerari, eta giza garapenerako helburu errealisten bidean aurrera egin, besteak beste honelako programak abiatuz: elikagaiak bermatzeko programak, oinarritzko hezkuntza, osasun edo etxebizitza zerbitzuak erdiestekoak eta kreditua edo teknologia bezalako produkzio baliabideak lortzekoak, instituzioak sendotzeko eta parte-hartze politikorako programak, gizon-emakumeen arteko berdintasuna iristeko programak edo ingurugiroa lehengoratzeko programak.

Ildo horretatik, Europako Batasuna Eratzeko Itunaren XVII. tituluak (Garapenaren aldeko lankidetzari), helburutzat finkatzen du garabideko herrialdeak, bereziki behartsuenak, iraunkor garatzea ekonomiaz eta gizartez; munduko ekonomian pixkanaka eta orekatuki integratzea: herri horietan pobrezia borroka egitea; eta demokrazia sendotzea. Bestalde, Nazioarteko lankidetzari buruzko uztailaren 7ko 23/1998 Legearen Zioen Azalpenak adierazten duen bezala, “Garapenaren aldeko lankidetzari gaitan Espainiak duen politikak 1978ko Konstituzioaren hitzaurreko deklarazioa du oinarritzko jatorri, zeinean Espainiak Nazioak aditzera ematen baitu asmoa duela Lurreko herri guztien arteko harreman bakezkoak eta lankidetzazkoak sendotzen lagun egiteko. Politika hori, hain zuzen, funtsezko osagaia da estatu demokratikoek garapen maila berera iritsi gabeko herriekiko izaten duten kanpo ekintzan, zeinak nazioarteko gizartearen eta bertan gertatzen diren harremanen ikuskera elkarkoi eta solidario batean oin hartzen baitu.”

Espainiako Lankidetzari dagokionez, guztiz aipagarria da zein bilakaera azkarra izan duen Lankidetzaren Deszentralizatua deritzanak, bai autonomia erkidegoak eta toki entitateak bai gizarte zibila bertan inplikatu direlako, gizartean ere nazioarteko lankidetzaren eta elkartasunaren aldeko sentimenduak gero eta hedatzen ari baitira. Gauzak horrela, Nafarroako lankidetzak toki gailena hartu du: 1998an garapen deszentralizatu guztiaren % 11 Nafarroatik heldu zen eta Nafarroa autonomia erkidegoen buru zen per kapitako garapenaren aldeko laguntza ofizialean. Nafarroak bere lankidetzaren aldeko programaren bitartez nazioartean lortu duen presentzia ukaezina da, eta halaxe ageri da Nafarroako Gobernuak programa hori abiatu zenetik finantzatu dituen mila inguru proiektuetan: Afrikako 35 herrialdetan, Amerika Latinoko 20tan, Europako 7tan eta Asiatan 7tan.

Lankidetzaren Deszentralizatua delakoak, hala-koa baita Nafarroatik hotsemandakoa, bost osagai bereizgarri ditu estatuen lankidetzaren sistema alde biko eta alde anitzeko alderako: garapenaren aldeko aktore eta eragile guztien parte hartze aktiboa, gizarte politika horien hartzaileak berak aurrea direla; aktore desberdinen arteko abenikoa eta osagarritasuna bilatu nahia; kudeaketa deszentralizatua, subsidiarotasunaren printzipioan oinarritua; Prozesu gisako hurbilbidea nahiago izatea ohiko proiektu gisakoa baino; eta gaitasun sendotzeari eta instituzio garatzeari lehentasuna ematea. Osagai horiek guztiak hartu dute nolabaiteko lekua Nafarroako lankidetzan, zeinaren ibilera instituzionala zortzigarren hamarkadako erdi aldera hasi baitzen, orduan abiatu zirelarik Nafarroako diru publikoaz finantzatutako lehenbiziko proiektuak garapenaren alde.

Uztailaren 7ko 23/1998 Legeak, Garapenaren aldeko Lankidetzaren Nazioartekoari buruzkoak, oinarri komun batzuk finkaturik ere, autonomia erkidegoak eta toki entitateak ezartzen dituzten lankidetzaren lanaren hasburutzat, aurrekontu autonomia eta garapen-burutzapenetako erantzukizunaren printzipioak gidari. Halaber, hainbat alderdi arautzen ere ditu, hala nola garapenaren aldeko gobernu kanpoko erakundeen araubide fiskala edo boluntarioen lana, gai horietako eskumenak bere baititu Nafarroako Foru Komunitateak.

Gaur egun, Nafarroako lankidetzari buruzko arau eta erregelamenduak barreiaturik daude hainbat lege testutan, hala nola Dirulaguntzei buruzko Foru Legea, Boluntarioen Lanari buruzko Foru Legea, Fundazioen tributu Araubideari buruzko Foru Legea, Garapenaren aldeko Gobernu kanpoko Erakundeen tributu araubidea araut-

zen duen Foru Legea, 95/1992 Foru Dekretua, ezartzen baitu zer dirulaguntza-araubide izan den garapenaren aldeko lankidetzaren gaitan, edo 222/1996 Foru Dekretua, zeinak Nafarroako Garapenaren aldeko Kontseilua sortzen baitu.

Hori guztia gogoan, bada, beharrezkoa da arau bakarra izatea lankidetzaren printzipio, eragile eta baliabideen osotasunari egitura eta batasuna emateko, eta horixe da Foru Lege honen helburu oinarritzakoa.

Foru Lege honen lehenbiziko kapituluak, Legearen printzipioak, helburuak eta aplikazio eremua ageri dira, zeinek Nafarroaren lankidetzaren arestian aipatu lankidetzaren deszentralizatuaren ereduak sailkatzen duen. Aipagarriak dira parte-hartze sozialaren printzipioa, bai Nafarroan eta bai lankidetzaren helburu diren herri eta eskualdeetan; herriek beren garapena finkatzeko duten eskubidea errespetatzeko printzipioa eta Nafarroak herri horiekin dituen politika eta ekintza guztiekin koherentzia gorde behar duen printzipioa; helburu nagusia pobrezia, gertaera multidimentsionala den partez, aurre egitea da, giza garapen jasangarria bultzatzeko joeraren barrenean. Xedapen orokor horien osagarri, II. kapituluaren edukia heldu da, lehentasun geografiko eta sektorialen gainekoa, zeinaren ezaugarri nagusia baita plan-gintza estrategiko baten oinarriak ezartzea. Plan-gintza hori, ondoren. V. kapituluak artikuluetan ezartzen diren plan eta programen bidez gauzatu-ko da.

Ondoren, III. kapituluak instituzioen gaiari ekin eta finkatzen du zer eginkizun dituzten gai honetan Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta toki entitateak, eta bai Nafarroako Garapenaren aldeko Kontseiluak ere, zeina baita gai honetarako Nafarroako Gobernuari eraukitzen zaion kontsulta-aholku organoa eta zeinaren bidez gauzatuko baita parte hartze sozialaren printzipioa.

IV. kapituluak ekintza eremuak finkatzen ditu (garapenaren aldeko lankidetzaren programa eta proiektuak adiera hertsian, larrialdietako laguntza humanitarioa eta Nafarroako gizartea gai honi buruz sentikortzeko eta eskolatzeko kanpainak). Finkatzen ere du zer baliabide izan dituzten administrazio publikoek ekintza horiek gauzatzeko. Halaber, kapitulu honetan aipagarriak dira eraginkortasuna, kontrola eta plangintza printzipioak.

Gobernu kanpoko lankidetzaren, Nafarroako lankidetzaren ardatza baita, V. kapituluak arautzen du. Garrantzi berezikoa da garapenaren aldeko gobernu kanpoko erakundeen definizioa (GGKE) eta haien erregistroa, aukera emanen baitie diru

publikoa erdiesteko, eta haien araubide fiskala, fundazioenarekin parekatzen baita. Kapituluhonek, gainera, hainbat baldintza baditu: GGKEez beste eragile sozialak garapenaren aldeko lankidetzak ekintzetan inplikatzeko bermeak.

VI. kapituluak eta Xedapen Gehigarriak Nafarroako lankidetzarako giza baliabideen inguruko arauak finkatzen dituzte. Bereizi egiten dira Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen egoera administratibo edo laboral desberdinak, batetik, eta beste entitate batzuen giza baliabideak, bestetik. Kasu horretan langile kontratatuak bereizi behar dira (23/1998 Legeko 38.2 artikulua aipatzen duen Kooperanteen Estatutua izanen baitute araubide) langile boluntarioetatik. Azken kasu horretan, eta beren lana zuzenean egiten dutelarik garabideko herrientzako lankidetzak proiektuetan, Nafarroatik bidali dituen erakundeak hainbat eskubide bermatu behar dizkie, kapitulu honetako artikuluetan xehetzen direnak.

Eta azkenik, Foru Legearen bukarri, azken kapituluak heldu da, jasotzen baititu ekintza sozialaren arlo honi, Garapenaren aldeko Lankidetzak Nazioartekoari, aplikatzeko zaizkion arau-hauste eta zehapenak.

I. KAPITULUA

Xedapen orokorrak

1. artikulua. Helburua eta aplikazio eremua.

Foru Lege honen helburua da ezartzea zer arauen bidez gobernatu behar diren Nafarroako Foru Komunitateak garabideko herriekin dituen lankidetzak ekintzak.

2. artikulua. Lankidetzaren helburuak.

Garapenaren aldeko lankidetzak-ekintzen azken helburua izanen da gizakia ardatz hartuta garapena bultzatzea, lankidetzak politikaren subjektu aktiboa den partez, bai oraingo gizaldietarako eta bai etorkizunekoetarako, planetaren ondare naturala babestuz.

Garapenaren aldeko lankidetzaren helburu orokorrak izanen ditu gogoan, Batasunaren itunean eta uztailearen 7ko 23/1998 Legean (Garapenaren aldeko Lankidetzak Nazioartekoari buruzkoa) adierazten direnak.

Garapenaren aldeko lankidetzak politikak egina-halean sendotuko ditu Nafarroak nazioartearekin dituen harremanak.

3. artikulua. Printzipio gidariak.

Nafarroako Foru Komunitateak bultzatzen duen garapenaren aldeko lankidetzak, historikoki azpiegituraz pobretutako herriengana Nafarroako

gizarteak duen elkartasunaren agerkaria baita, honako printzipioak izanen ditu gidari:

a) Herrien beregaintasun osoa errespetatzea.

b) Ekintzak planifikatu eta gauzatzeko, haien eragina hartuko duten herriekin adostutako helburuak begiratu dira.

c) Lankidetzaren jomuga izanen da pertsona eta familien premia oinarritutako asetzeko eta orotara txertatuko da bai ekintza sozialetan, kulturetan, ekonomikoetan eta teknikoetan, botere publikoek bultzatuak nahiz erakunde pribatuak abiatuak izan.

d) Foru Komunitateko Administrazioak bultzatuko du gizarte zibilaren sektore esanguratsuek parte har dezaten garapenaren aldeko lankidetzak mamitzen eta gauzatzen.

e) Garapenaren aldeko lankidetzak bultzatu egingen ditu behar diren baldintzak herri guztietan pertsonen arteko berdintasuna benetakoa eta eragingarria izan dadin, eta bai aldi berean errespetatuko ere herri bakoitzaren ezaugarriak, norbanakoak beren komunitatean osoki integraturik egon daitezen.

f) Garapenaren aldeko lankidetzak bere gain hartuko du demokraziaren aldeko konpromisoa eta lagun egingen die herri pobretuei erabide politiko parte-hartzaile batean gara daitezen, giza eskubide eta libertate guztien erabilera oinarri.

g) Garapenaren aldeko lankidetzak ekintza guztiak ez dira izanen lankidetzaren helburu diren herrien ahaleginen osagarri eta lagunbide besterik, garapen jasagarria eta norberak jasateko modukoa lortzeko.

h) Garapenaren aldeko lankidetzak gaietan eskumena duten Nafarroako administrazio publiko guztiek lagun egingen dute oro har eskura dituzten baliabide publikoak ahalik eta hobekienik aprobetxatzen.

Printzipio hauek gidari izanen dira Foru Komunitateko Administrazioak bere eskumenpeko ekintza eremu desberdinetan aplikatzen dituen politika guztietan, garapen bidean diren herriei eranstean ahal badie.

II. KAPITULUA

Lehentasun geografiko eta sektorialak

4. artikulua. Garapenaren aldeko lankidetzaren lehentasunak.

Garapenaren aldeko Nafarroako lankidetzak bi lehentasun izan behar ditu antolagarri, Foru Lege

honetako 16 eta 17. artikuluetan aipatzen diren plan eta programetan ageri den moduan:

a) Lehentasun geografikoa: zein herri eta eremu izanen diren Nafarroako lankidetzaren helburu lehenetsia.

b) Lehentasun sektoriala: zein ekintza eremu lehenetsiko diren.

5. artikulua. Lehentasun geografikoa.

Nafarroako lankidetzaren ikuskerak mundu osoak hartzen du helburu, baina pobrezia indize altuenak dituzten herri-eskualdeei emanen die lehentasuna.

6. artikulua. Lehentasun sektorialak.

Foru Komunitatetik eratzen den lankidetzak honako ekintza eremuetara joko du nagusiki:

a) Oinarrizko giza garapenari dagozkion programa eta proiektuak: elikagaiak bermatzekoak, oinarrizko hezkuntza eta giza baliabideak gertutzekoak, osasun laguntza, ura hornitu eta edateko ontzeko programak eta bestelakoak.

b) Pobrezia gutxitzeko estrategiak, enplegu emankorra izateko aukerak gehitzekoak eta soberakinak sortzekoak.

c) Haurren eta beste sektore erasotzeko errazen aldeko ekintzak.

d) Indigena talde autoktonoen garapena faboratzeko programa eta proiektuak.

e) Giza eskubideen aldeko ekintzak, instituzio deszentralizatuei laguntzekoak eta gizartze zibila sendotzekoak.

Kasu guztietan, lehentasuna emanen zaie garapenean emakumearen egoera eta jeneroen arteko berdintasuna aintzat hartzen dituzten ekintzei, eta bai ingurugiroa eta baliabide naturalen zainketa eta ustiapen jasangarria aintzat hartzen dituztenei.

III. KAPITULUA **Esparru instituzionala**

7. artikulua. Nafarroako Gobernua.

Nafarroako Gobernuak lau urtetik behin finkatuko du zer lerro eta artezbide nagusi izanen dituen bere garapenaren aldeko lankidetzak politikak eta nola mamituko diren Lege honek politika horretarako finkatzen dituen helburu eta lehentasunek. Hori guztia, Foru Lege honetako 16. artikulua finkatzen duen moduan.

Departamentu eskudunak, Nafarroako Gobernuaren jarraibideekin bat, lankidetzak politika hori

programatu eta gauzatuko du, Nafarroako Garapenaren aldeko Kontseilua lagun duela, Foru Lege honetako 9-11 artikuluek agintzen duten moduan.

8. artikulua. Nafarroako toki entitateak.

Nafarroako toki entitateek zilegi izanen dute, beren eskumenak erabiliz, bidezko iruditzen zaizkien garapenaren aldeko lankidetzak ekintzak egitea, Foru Lege honetako I eta II. kapitulueta lehentasun-helburuak begiratzuz. Garapen bidezko herrien udal-sistema sendotzen egiten dute eginahala, aukeran.

9. artikulua. Nafarroako Garapenaren aldeko Kontseilua.

Garapenaren aldeko lankidetzak eragileak koordinatu eta parte hartzeko premiaren erakusgarri, Nafarroako Garapenaren aldeko Kontseilu bati ematen zaio arau, Foru Komunitateko Administrazioaren kontsulta organo kolegiatu gisa. Erregelamenduak emanen dizkion antolamendua, funtzionamendua eta eskumenak izanen ditu.

10. artikulua. Kontseilukide diren entitate eta organoak.

Kontseiluak Departamentu eskudunaren kontseilaria izanen du buru eta honakoek izanen dute eskubidea kontseilukide izateko: Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa, Nafarroako Parlamentuko taldeak (Foru Parlamentuko kide ez diren ordezkarien bidez beti ere), Nafarroako Udal-kontzejuen Federazioa, Nafarroan dauden unibertsitateak, Foru Komunitateko sindikatu eta enpresari elkarte ordezkariak handiena dutenak eta Nafarroako garapenaren aldeko lankidetzako gobernu kanpoko erakundeak.

Kontseiluak zilegi izanen du garapenaren aldeko lankidetzan adituei gomita egitea aholku eman diezaioten.

11. artikulua. Kontseiluaren eginkizun oinarrikoak.

Kontseiluak honako eginkizunak izanen ditu:

a) Nafarroako administrazio publikoei aholku eta laguntza ematea garapenaren aldeko nazioarteko lankidetzaren gaitan.

b) Garapenaren aldeko lankidetzak plan eta programen gaineko txostenak egitea, Nafarroako Gobernuari bidali baino lehen.

c) Garapenaren aldeko lankidetzak ukitzen duten lege proiektuen gaineko txostenak aurrez egitea.

d) Lagun egitea epez epe jarraipena eta ebaluazioa egiten bai proiektuen burutzapenari eta bai garapenaren aldeko laguntza ofizialaren osotarako betetze mailari.

e) Jendea garapenari buruz sentikortu eta hezitzeke ekimenak proposatu eta bultzatzea.

f) Administrazio Publiko desberdinak eta Nafarroako Foru Komunitatean garapenaren aldeko lankidetzan ari diren eragileen artean elkarlana egon dadin bultzatzea.

g) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren Departamentuentzako txostenak modutzea, eta bai Nafarroako Foru Komunitatean garapenaren aldeko lankidetzan ari diren eragileentzako ere, haiek eskatuta, jakin ahal izateko garatzeko bidean dauden herrialdeekiko harremanetan eragina duten Nafarroako Gobernuaren beste politika batzuk bat datozen garapenerako lankidetzaz nazioartekoaren helburuekin.

h) Garapenaren aldeko lankidetzaz gaitan Nafarroako Gobernuak eskatu edo legeek agintzen dizkieten beste eginkizun guztiak.

IV. KAPITULUA

Garapenaren aldeko lankidetzaren ekintzarloak, baliabideak eta plangintza.

12. artikulua. Ekintza-arloak

Nafarroako Administrazio Publikoak honako arloetan arituko dira:

a) Giza garapen integral, parte-hartzaile eta jasangarriko programa eta proiektuak, alderdi guztietan: instituzionala, soziokulturala, ekonomiko-finantzarioa, zientifiko-teknikoa, hezkuntzazkoa eta ingurugirokoa.

b) Laguntza humanitarioko programa eta proiektuak, dela hondamendi naturalengatik dela giza-ekintzagatik larrialdian edo berehalako arriskuan dauden gizataldeei lagun egitekoak eta horiek berregokitzekoak.

c) Nafarroako jendarteko iritzia eta oro har gizartea eskolatu eta sentikortzeko programa eta proiektuak, garapen bideko herrialdeen egoera ulertu eta haiekiko elkartasuna bultzatzekoak.

13. artikulua. Baliabideak.

Foru Lege honetako aurreko artikuluan deskribatu diren modalitateak gauzatzeko, Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoek honako baliabideak izanen dituzte, gero batean erregulamendu bidez garatzekoak:

a) Garapenaren aldeko lankidetzaz ekintzak sustatzeko diru publikoa erabiltzea.

b) Nafarroako Administrazio Publikoen ekimen propioa identifikazioaren eta gauzatzeko aukeren inguruko azterlanak egiteko, gero batean berak aurrera eramatekoak.

14. artikulua. Efizientzia.

Helburuak hobeki iristeko eta erabiltzeko baliabideei etekin gehiago ateratzeko, Nafarroako Administrazio Publikoek aukeran kofinantzazio araubidean egiten dituzte ekintzak; zilegi izanen dute administrazio bat baino gehiagoren aportazioekin fondoak osatzea eta bultzatuko dute garapenaren aldeko lankidetzan ari diren eragileen arteko informazio trukea.

15. artikulua. Kontrola eta ebaluazioa.

Foru Komunitateko Administrazioak ezarriko ditu behar diren kontrol eta ebaluazio tresnak fondo publikoak erabiltzean legeak begiratu eta efikazia zaindu dadin segurtatzeko, Kontuen Garaparak legez bere dituen eskumenak ezertan galaz gabe.

16. artikulua. Plangintza.

Nafarroako Gobernuak lau urteko ekintza planak egiten ditu finkatzeko, bere eskumenen esparruan, zer lehentasun eta helburu izanen dituen Foru Lege honetan finkatu diren garapenaren aldeko lankidetzaz ekintzei dagokienez. Zilegi izanen da plan horiek Nafarroako Parlamentuan tramitatzea.

17. artikulua. Urteroko Ekintza Programa.

Urtero, Departamentu eskudunak plan bat itxuratuko du lau urteko ekintza planak garatzeko, eta bai egindako Urteroko Planaren kudeaketa txosten bat ere. Biak Nafarroako Gobernuak onetsi beharko ditu.

V. KAPITULUA

Gobernuz kanpoko lankidetzaz.

18. artikulua. Garapenaren aldeko gobernuz kanpoko erakundeak.

Foru Lege honek agintzen dituenetarako, hauek hartzen dira garapenaren aldeko gobernuz kanpoko erakundetzat (GGKE): beren estatutu edo balio bereko agirietan Foru Lege honetako 6. artikuluan aipatzen diren garapenaren aldeko lankidetzaz ekintzen arloekin lotura duten garapenaren aldeko nazioarteko lankidetzaz jarduerak egitea aitortzen duten erakunde pribatu irabazi-asmorik gabeko eta legez eratutako guztiak.

19. artikulua. Nafarroan garapenaren aldeko lankidetzaz aritzeko baldintzak.

Nafarroan garapenaren aldeko lankidetzan aritu nahi duten erakundeek honako baldintzak bete beharko dituzte:

a) Lege indardunen arabeko nortasun juridikoa izatea.

b) Nafarroako Foru Komunitatean helbidea edo delegazio iraunkorra izatea, Foru Lege honen barrenean antolatzen diren ekintzei dagozkien erabaki eta kudeaketan gertaleku benetakoa izateko modukoak.

c) Irabazi asmorik gabekoak izatea. Irabazi beharrezko enpresa, gremio edo antzeko erakunde pribatuen kasuan, baldintza horrek adierazten du erakundeak ez duela beretuko Foru Lege honen babesean egindako garapenaren aldeko lankidetzak ekintzen ondorioz izandako irabazi edo onura enpresariala. Nolanahi ere, ekintza horietan izandako dirusarrera guztiak erabat gardenki kontabilizatu beharko dira eta garapen ekintzetan berrinbertitu, edo laguntza humanitarioetan edo garapenaren aldeko hezkuntzan, kasuko Administrazioaren oniritzi espresua dagoela.

d) Bertako bazkide edo kide bat izatea proiektuak burutu behar diren eremuan.

Foru Lege honek agintzen dituenetarako, bazkide edo erkide lokaltzat ulertuko da programa edo proiektua materialki gauzatzen duen erakundea, laguntza hartzen duen herriko legeen arabera nortasun juridikoa duena.

e) Bere programa eta proiektuetarako fondoak eskuratzeko, fondo horiek eskuratzeko oinarrietan eskatzen diren betebeharrak bete beharko dituzte.

20. artikulua. Nafarroako Garapenaren aldeko Gobernuz kanpoko Erakundeen erregistroa.

Nafarroako Garapenaren aldeko Gobernu-kanpoko Erakundeek, 19. artikulua ezartzen dituen baldintzak betetzen badituzte, zilegi izanen dute garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzaren Zerbitzuan ireki den erregistro batean inskribatzea, zeina erregelamendu bidez garatuko baita. Inskripzio hori nahitaezkoa izanen da diru publikoa erdietsi nahi bada.

21. artikulua. Garapenaren aldeko Gobernuz kanpoko Erakundeen eta haientzako aportazioen araubide fiskala.

1. Fundazioen tributu araubidea, uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legean arautzen dena, aplikatuko zaie, Sozietateen gaineko Zergari eta Toki Tributuei dagokienez, Foru Lege honetako 20. artikuluan aipatzen den erregistroan inskribaturik dauden Garapenaren aldeko Gobernuz kanpoko Erakundeei.

2. Apirilaren 26ko 129/1999 Foru Dekretu Legegileko 35 I.A).c) artikuluan aurreikusten den salbuespen subjektiboa (dekretu horrek Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren xedepenen Testu Bateria-tua onetsi zuen) aplikatuko zaie bertan aipatzen diren entitateei baldin eta garapenaren aldeko lan-kidetzaren barrenean dekretu horrek aipatzen dituen jardueretan aritzen badira.

3. Foru Lege honetako 6. artikulua ezartzen dituen ekintza arloetako jarduerak laguntza sozialtzat hartzen dira Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legeko 17.1.17 artikuluan aurreikusten den salbuespena izateari begira.

4. Pertsona fisiko nahiz juridikoei 10/1996 Foru Legean ezarri den tributu araubide berezia erdietsi duten Garapenaren aldeko Gobernu kanpoko Erakundeei egiten dizkieten aportazioek eskubidea emanen dute Foru Lege horretako II. Tituluko I eta II. kapituluetan aipatzen diren pizgarriak izateko.

5. Foru Lege honetako 20. artikulua aipatzen duen erregistroan inskribatu gabeko Garapenaren aldeko Gobernu kanpoko Erakundeen tributu araubidea, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeko XII. kapituluaren finkatzen dena izanen da.

VI. KAPITULUA

Garapenaren aldeko lankidetzaren langileak.

22. artikulua: Xedapen orokorrak.

Garapenaren aldeko lankidetzeta programetako helburuak eta kudeaketa betetzeko, zilegi izanen da Administrazio Publikoen zerbitzuko langileak erabiltzea edo Nafarroako garapenaren aldeko lankidetzan aritzen direnetako edozein erakundetakoak.

23. artikulua. Administrazio publikoetako langileak.

1. Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileek zilegi izanen dute garapenaren aldeko lankidetzak ekintzetan parte hartzea, bai administrazio horien beren programetan eta bai beste entitate batenetan.

2. Batean zein bestean, langileon administra-
zio edo lan egoera kasurako den legeriaren ara-
bera dagokiona izanen da.

3. Langile horien parte hartzeak sortzen dituen kostuak, kasuko administrazioak nazioarteko garapenaren aldeko lankidetzarako dituen aurrekontu sailetatik ordainduko dira.

4. Administrazio publiko baten programa eta proiektu propioen exekuzioen kasuan, administrazio horrek zilegi izanen du langileak kasurako komeni diren aseguru osagarriez hornitzea programa eta proiektu horien aurrekontutik pagaturik.

24. artikulua. Beste entitate batzuen zerbitzuko langile kontratatuak: kooperanteak.

Kooperante hauen eskubide-betebeharrak, eta haien bateraezintasunen araubidea, prestakuntza, ematen dituzten zerbitzuen homologazioa, aurreikuspen sozialeko modalitateak eta haien araubide juridikoko beste alderdiak, 23/1998 legeko 38.2 artikulua aipatzen duen Estatutuan finkatzen direnak izanen dira.

25. artikulua. Beste entitateen zerbitzuko langile boluntarioak.

Garapenaren aldeko langile boluntarioak dira beren burua libreki behartzen duten pertsona fisikoak interes orokorreko jarduerak modu altruista eta solidarioan egitera, nortasun juridikoa duten eta garapenaren aldeko programa konkretuak kudeatzen edo burutzen parte hartzen duten irabazi asmorik gabeko erakundeetan integraturik.

Zilegi izanen da aldi berean langile boluntario eta erakunde bereko kide izatea.

26. artikulua. Herbesteko langile boluntarioak.

Nafarroako Garapenaren aldeko Gobernu kanpoko Erakundeak, bertan integraturik dauden eta herbestean ari diren langile boluntarioei dago kienez, beharturik daude honako eskubideak begiratzera (eskubide horiek langileak eta erakundeak lotzen dituen hitzarmen edo itun formalaren gutxieneko edukia izanen dira):

a) Helburuko herrialdean mantendu eta estatatzeko premiei eta joan-etorrien gastuei aurre egiteko behar diren baliabideak eta esleitu zaien jarduera betetzeko baliabide materialak izatea.

b) Pertsona horien eta beraiekin joaten diren ahaide zuzenen aldeko asistentzi-aseguru bat, herbestean osoan gutxienez eritasun eta istripu arriskuak hartzen dituen, eta bai etxeratze gastuak eta hirugarrenei egindako nahiz hirugarrenengandik hartutako kalteen erantzukizun zibila ere.

c) Langile boluntarioa dela frogatzeko moduko kreditazioa izatea.

d) Prestakuntza aldi bat, hala behartzen bada.

27. artikulua. Langile boluntario guztientzako xedapenak.

Lankidetzaren Erakundeak adierazi behar die bere menpeko langile boluntarioei zein diren bere ekintzako helburuak, ekintza hori zein eremutan gertatzen den, ze eskubide-betebeharrak dituzten, eta helburuko herriaren legeak begiratu behar direla.

Aurreko kapituluetan aurreikusi gabeko guztirako, Boluntario lanari buruzko 2/1998 Foru Legeak agintzen duena aplikatuko zaie lankidetzako langile boluntarioei.

VII. KAPITULUA

Arau-haustea eta zehapenak.

28. artikulua. Garapenaren aldeko gobernu kanpoko lankidetzaren gaitako arau-haustea.

1. Garapenaren aldeko gobernu kanpoko lankidetzaren gaitako arau-haustea dira Foru Lege honetan eta bera garatzeko arauetan agintzen denari kontra egiten dioten egite edo ez-egite guztiak eta bai Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoetako dirulaguntzak eman eta kontrolatzeko araubide orokorra arautzen duen ekainaren 9ko 8/1997 Foru Legeari kontra egiten diotenak.

2. Arau-haustea arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke, nolako izaera, garrantzia eta eragin izan duten.

29. artikulua. Arau-haustea arinak.

Hauek dira arau-haustea arinak:

a) Herbesteko langile boluntarioei ez ematea langile boluntario direla frogatzeko moduko kreditazioa.

b) Ez ematea herbesteko langile boluntarioei behar duten prestakuntza.

c) Herbesteko langile boluntarioei ez ematea bere gain duten lankidetzaren-eginkizuna burutzeko behar dituzten baliabide materialak.

d) Ez sinatzea Foru Lege honetako 26. artikulua aipatzen duen hitzarmen edo itun formalak, artikulua hartantxe ezartzen den gutxieneko edukiarekin.

e) Foru Lege honek edo bera garatzeko xedapenak agintzen dutena urratu eta arau-haustea larri edo oso larri ez diren egite edo ez-egite guztiak.

30. artikulua. Arau-haustea larriak.

Hauek dira arau-haustea larriak:

a) Ez ematea herbesteko langile boluntarioei helburuko herrian mantendu eta estatatzeko gastuei eta joan-etorrien gastuei aurre egiteko behar dituzten baliabideak.

Ez aseguratzea herbesteko langile boluntarioak Foru Lege honetako 26. artikuluko b) idatz-zatiak ezartzen duen moduan.

c) Administrazioari kontrol eta ebaluazio lana galarazi edo trabatzea.

d) Izaera bereko hiru edo gehiago arau-hauste metatzea.

31. artikulua. Arau-hauste oso larriak.

Hauek dira arau-hauste oso larriak:

a) Izaera bereko hiru edo gehiago arau-hauste metatzea.

b) Herbesteko langile boluntario edo kontratatuen osotasun fisikoarentzat edo osasunarentzat arrisku edo kalte handia sortzen duten egite edo ez-egite guztiak.

32. artikulua. Zehapenak.

1. Nazioarteko Garapenaren aldeko lankidetzaren gaitako arau-hausteak honako faktoreen arabera zehatuko dira:

1.1. Arau-hauste oso larriek 1.000.001 pezetatik 10.000.000 pezetara bitarteko isuna izanen dute. Zehapenerako eskumena duen agintariak zilegi izanen du erabakitzea, horrez gain, hiru urtetik bostera bitartean Foru Lege honetako 6. artikuluari dagozkion jarduerak finantzatzeko dirulaguntzak eskuratzeko eskubidea galtzearen zehapena ezartzea.

1.2. Arau-hauste larriek 100.001 pezetatik 1.000.000 pezetara bitarteko isuna izanen dute. Zehapenerako eskumena duen agintariak zilegi izanen du erabakitzea, horrez gain, urte batetik hiru urtera bitartean Foru Lege honetako 6. artikuluari dagozkion jarduerak finantzatzeko dirulaguntzak eskuratzeko eskubidea galtzearen zehapena ezartzea.

1.3. Arau-hauste arinek 50.000tik 100.000 pezetara bitarteko isuna izanen dute, eta gainera ohartarazpena.

2. Zehapenak graduatzeko aintzat hartu behar diren inguruabarrak hauek dira:

a) Pertsonentzat sortzen duen arrisku edo kaltea.

b) Arau-hauslearen asmoa.

c) Egindako alterazioak larriak diren.

d) Administrazioak egindako ohartarazpenak eta errekerimenduak bete ez izana.

d) Urtebetean izaera bereko arau-hauste bat baino gehiago egin den, administrazio bideko ebazpen irmo batek hala deklaratu duenean.

33. artikulua. Preskripzioa.

Arau-hauste oso larriek hiru urteren buruan preskribituko dute; larriek bi urteren buruan eta arinek sei hilabeteren buruan, arau-haustea egin den egunetik kontatuta.

Arau-hauste oso larrien zehapenak hiru urteren buruan preskribituko dute; arau-hauste larrienek bi urteren buruan eta arinenek urte baten buruan zehapena ezartzen duen ebazpena irmotu eta biharamunetik kontatuta.

34. artikulua. Zehatzeko eskumena duten organoak.

Unean-unean nazioarteko garapenaren aldeko lankidetzaren gaitako eskumenak dituzten organoak dira zehapen prozedura hasteko eskumena dutenak.

Arau-hauste larri eta arinen zehapen prozedura ebazteko eskumena, unean unean nazioarteko garapenaren aldeko lankidetzaren gaitako eskumenak dituen Departamentuaren titularrak izanen du.

Arau-hauste oso larrien kasuan, Nafarroako Gobernuari dagokio ebaztea.

35. artikulua. Zehapen prozedura.

Zehapen prozedura abuztuaren 11ko 1398/1993 Errege Dekretuz onetsitako zehapen eskumena erabiltzeko prozeduraren Erregelamenduak finkatzen duena izanen da.

Xedapen gehigarria.

Aldatzen da Nafarroako Administrazio Publikoaren zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bateatuaren 24. artikuluko 1. idatz-zatiko i) letrako testua, eta honela uzten:

"i) Baimena ematen zaienean eginkizun bat aurrera ateratzeko Nazioarteko Erakundeetan, Herbesteko Erakunde publikoetan edo legez aitortutako Garapenaren aldeko Gobernu kanpoko Erakunde irabazi asmorik gabeko batean, kasuko Administrazioak kofinantzatzen duen programa edo proiektu batean."

Xedapen iragankorra

Nafarroako Gobernu kanpoko Lankidetzaren Erregistroa arautzeko erregelamenduak indar hartzen ez dueino, hartan inskribatu beharrean gobernu kanpoko Erakundeak 23/1998 Legeko

33. artikulua aipatzen duen Estatuko erregistroan inskribatuko dira.

Azken xedapenak.

Lehenbizikoa. Baimena ematen zaio Nafarroako Gobernuari Foru Lege hau garatu eta beteazteko behar diren xedapen guztiak emateko.

Bigarrena. Baimena ematen zaio Nafarroako Gobernuari, Nafarroako Garapenaren aldeko

Kontseiluari entzun ondoren, epez epe berritzeko Foru Lege honetako 32. artikuluan aurreikusten diren isunen zenbatekoak.

Hirugarrena. Indargabetzen dira Foru Lege honek agintzen duenari kontra egiten dioten xedapen maila bereko edo apalagoko guztiak.

Laugarrena. Foru Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean indar hartuko du.

Foru Lege proiektua, Irunberriko Udalaren herri lurretako 81.937 metro koadro onura publikokoak direla deklaratu eta horien desafektazioa onesten duena

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko abuztuaren 28an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Foru Diputazioak, 2000ko uztailaren 17an hartutako Erabakiaren bidez, Irunberriko Udalaren herri lurretako 81.937 metro koadro onura publikokoak direla deklaratu eta horien desafektazioa onesten duen Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 155. artikuluan ezarritakoarekin bat eta Eledunen Batzarra entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehen.- Irunberriko Udalaren herri lurretako 81.937 metro koadro onura publikokoak direla deklaratu eta horien desafektazioa onesten duen Foru Lege proiektuaren biderapena zuzeneko eta irakurketa bakarrekota izanen ote den Osoko Bilkuraren esku jartzea.

Bigarrena.- Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea eztabaidari ekiteko Osoko Bilkura egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Biltzarreko Mahaiaren aurrean aurkeztu beharko dira.

Hirugarrena.- Aipaturiko proiektua Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2000ko abuztuaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proiektua, Irunberriko Udalaren herri lurretako 81.937 metro koadro onura publikokoak direla deklaratu eta horien desafektazioa onesten duena

ZIOEN AZALPENA

Irunberriko Udalak eskatzen du herri lurretako 81.937 metro koadro onura publikokoak direla deklaratu eta desafekta daitezela, ondorenean Javier Pérez de Rada Díaz-Rubín jaunaren 75.333 metro koadroekin trukatzearren; helburua da erosten den lurra ureztalutik bihurtzea.

Eskatutako desafektazioarekin haxe lortu nahi da: “Sasos de Salazar” izeneko proiektua osatzeko 1999ko urriaren 26an Udalak eta Pérez de Rada jaunak egin zuten hitzarmena bete ahal izatea.

Lurzati txikientzat ezarritako mugak gainditzen direnez gero, Irunberriko Udalak eskatzen duen lur-desafektazioa foru lege baten bidez onetsi beharrekota da, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legeko 140.5 artikuluan xedatutakoarekin bat.

1. artikulua. Irunberriko Udalaren herri lurretako 81.937 metro koadro onura publikokoak direla deklaratu eta horien desafektazioa onesten da. Lur horiek “Soto de los Caballos” parajeak dira, katastroko 5. poligonoko 228. lurzatiaren parte bat hain zuzen.

2. artikulua. Irunberriko Udalari baimena ematen zaio aurreko artikuluan deskribatutako lurak Javier Pérez de Rada Díaz-Rubín jaunaren

75.333 metro koadroekin trukatzeko (5. poligono-ko 237. lurzatia), baldin eta ondorengo baldintza hauek betetzen badira:

a) Trukearen akordioko klausula batek xedatu dezala lurak herri ondarera itzuliko direla, baldin eta desafektatzera bultzatu zuten xedeak edo desafektazioaren baldintzak desagertu edo bete gabe uzten badira.

b) Itzultze klausula hori ager dadila kontratua formalizatzen duen agiri publikoan, Jabetza-erregistroan sartzen den hartan.

c) Bete daitezela Irunberriko Udalak foru lege honetan aipatutako truke hori egiteko behin betiko onetsi duen baldintzen pleguan ezarritakoak.

Azken xedapenak

Lehena. Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen zaio, foru lege hau aplikatu eta garatzeko behar diren xedapenak oro eman ditzan.

Bigarrena. Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Foru Lege Proiektua, Sarrigurengo udalez gaindiko planeamendu sektorialak ukituriko eremua urbanizatu eta eraikitzeke prozesua arautzen duena

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko abuztuaren 28an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Foru Diputazioak, 2000ko uztailaren 31n hartutako erabakiaren bidez, Sarrigurengo udalez gaindiko planeamendu sektorialak ukituriko eremua urbanizatu eta eraikitzeke prozesua arautzen duen Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarra entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehena.- Sarrigurengo udalez gaindiko planeamendu sektorialak ukituriko eremua urbanizatu eta eraikitzeke prozesua arautzen duen Foru Lege proiektua ohiko jardunbidez bideratzea.

Bigarrena.- Proiektu hartaz Irizpena emateko ahalmena Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Batzordearen esku uztea.

Hirugarrena.- Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epea irekiko da, 2000ko irailaren 22ko eguerdiko hamabietan** bukatuko dena. Epe horretan, Erregelamenduko 126. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko Taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dizkiote proiektuari.”

Iruñean, 2000ko abuztuaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege Proiektua, Sarrigurengo udalez gaindiko planeamendu sektorialak ukituriko eremua urbanizatu eta eraikitzeke prozesua arautzen duena

Foru Komunitateko herritarrek etxebizitza bat izateko ahalbideak sustatzeko lana Nafarroako erakunde publikoen helburu garrantzitsunetarikoa bat izan beharko litzateke. Alde horretatik, Sarrigurengo eko-hiriaren proiektua, hurrengo urteetan

etxebizitzak egiteko gizartearen eskaerari erantzuna emateko asmoz, erakundeek hartutako konpromisoa gauzatzeko aurrerapauso garrantzitsua da.

Proiektu horren helburu nagusia etxebizitzaren eskaintza zabala egitea da, Iruñerri osotik datorren eskaerari erantzuteko egokia. Izan ere, aurreikusitako etxebizitza kopurua handia da eta, horrela, Iruñerri osotik datorren presako eskaerari erantzuna emateko modua izanen da. Gainera, ingurunearen eta biztanleriaren artean bestelako harremanbideak bultzatu nahi dira eta ingurugiro kalitatearen estandarrak igo.

Sarrigurengo eko-hiria bizigune berri bat izanen da, berariazko ezaugarriak izanen dituena. Iruñerriko ardatz gisa eta eskualdea antolatzeke eredu gisa garrantzi handia hartuko du. Izan ere, Iruñerria bizigune mugatuaren inguruan egituratu nahi da, ez eredu sakabanatu eta ordenarik gabeko inguruan. Gainera, lan egiteko eta bizitzeko eremuak eskualdean diren horrelako hiri-sareetan egoki integratzeko asmoa dago, sinergiak bultzatzearen.

Bestalde, epe laburrean, lur eremu urbanizagarri zabalak lortu nahi dira, zoruaren eta etxebizitzaren prezioaren igoera justifikaezinak saihesteko eta ageriko den prozesu horri garaiz aurre egiteko.

Helburuak horiek direla, foru lege honek Sarrigurengo eko-hiriaren proiektua gauzatzeko behar den lurzoru publikoa besterentzeko prozesua arautzen du. Horretarako, Nafarroako Gobernuak indarra duten legeetan ezarrita dauden aginduzko hirigintza baliabideak tramitatu ditu. Aurreikusitako helburu soziala kontuan harturik, egoki ikusi da lurzoruaren besterentzeari ekiteko enkantearen bidea bazter uztea. Hortaz, zorua besterendu edo eskualdatzeko bide hauexek ezarri dira: lehiaketa publikoa; Nafarroako Gobernuaren menpeko sozietate instrumentalei edo irabazteko asmorik ez duten laguntzazko entitateei edo gizarte entitatei zuzenean besterendu edo eskualdatzea; edo lagapena, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko uztailaren 4ko 10/1994 Foru Legearen 274. artikulua aipatu bezala. Gainera, lurzatiak eta haiei dagozkien eskubideak foru lege honen helburu sozialak betetzeko egoki diren ondasun eta eskubideekin trukatzeko arauak ere ematen dira.

Foru lege honen helburuen ildotik, zorua eskuratzeko egiten diren lehiaketa publikoetan zilegi izanen da lizitatzailleen proposamenetan aurkezten diren baliabideen maila profesional eta teknikoari buruzko baldintza batzuk eskatu edo baloratzeari, zertarako eta ondokoak bermatzeko: proposamenaren bideragarritasun teknikoa, ingurugiroaren eta arkitekturaren aldetik behar den kalitatea, etxebizitza-sustapenaren bideragarritasun ekonomikoa eta etxebizitzaren helburu diren erabiltzaileen ezaugarri sozioekonomikoak. Hala ere, Nafarroako Gobernuari baimena ematen zaio behar diren neurriak ezar ditzan proiektua egoki kudeatzen dela eta ezartzen diren baldintzak betetzen direla bermatzeko.

1. artikulua. Nafarroako Gobernuari baimena ematen zaio Sarrigurengo eremuko udalez gaindiko planeamendu sektorialaren barrenean diren lurzatiak eta haiei atxikiriko eskubideak besterendu edo eskualdatzea erabaki dezan, haien zatikalkulatzen den balio ekonomikoa gorabehera.

2. artikulua. Aurreko artikuluan aipatu ondaskinak besterendu edo eskualdatzeko honako bide hauek baino ezin dira erabili:

a) Lehiaketa publikoa.

b) Nafarroako Gobernuaren sozietate instrumentalei zuzenean besterendu edo eskualdatzea edo, bestela, irabazteko asmorik ez duten laguntzazko entitate edo gizarte entitate eskatzaileei; konparazio batera, fundazioak, mutualitateak, kooperatibak eta, finean, nolabaiteko babes publikoa izanen duten etxebizitzaren eraikuntza sustatzen duten antzeko beste entitate batzuk. Kasu horretan, Nafarroako Gobernuak behar diren neurriak hartuko ditu babes publikoaren araubideko etxebizitzaren azken erabiltzaileek etxebizitza horiek eskuratzeko eskatzen diren baldintza guztiak bete ditzaten.

c) Lagapenak, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko uztailaren 4ko 10/1994 Foru Legearen 274. artikulua agindu bezala, planeamenduan ezarritakoaren arabera bidezkoak baldin badira.

d) Trukea: lurzatiaren eta haiei atxikita dauden eskubideen orde, foru lege honen helburu sozialak betetzeko egoki diren ondasun eta eskubideak eskainiz.

3. artikulua. 1. Nafarroako Gobernuko departamentu eskudunak ahalmena izanen du urbanizatzeko kudeaketa jarduerak eta aurreikusitako planeamendua burutzeko behar diren bestelakoak sozietate instrumentalen gain uzteko.

2. Halaber, Sarrigurengo eremuan behar diren ekipamendu, dotazio eta sistema orokorrak ahalbidetzea helburu, Nafarroako Gobernuko departamentu eskudunak horretarako hitzarmenak sinatu eta lagapenak egiteko ahalmena izanen du.

4. artikulua. Lurzorua eskuratzeko lehiaketa publikoetan Nafarroako Gobernuko departamentu eskudunak edo, bestela, kasuan kasuko sozietate instrumentalak honako alderdi hauei buruzko baldintza batzuk bete daitezela eskatu edo baloratu ahal du:

a) Lurzatiak saltzeko prezioa.

b) Proposamenaren bideragarritasun teknikoa bermatzeko, lizitatzailleek proposamenaren hitz emandako baliabideen ezaugarri profesional eta teknikoak.

c) Arkitektura eta ingurugiroaren aldetik kalitatea.

d) Egin gogo den sustapenaren bideregarritasun ekonomikoa.

e) Etxebizitzaren azken erabiltzaileen ezaugarri sozioekonomikoak, horien barrenean direla familia egoera, etxebizitzaren beharra norainokoa den eta dirusarrerak.

Xedapen gehigarria

Sarrigurengo eremuko planeamendu sektoriala ekinbide publikoko jarduketara denez gero, Nafarroako Gobernuaren horretarako eskumena duen departamentuko kontseilariak ahalmena du hirigintza kudeaketarako behar diren agiriak tramitatu eta onesteko, urbanizazio proiektua barne.

Azken xedapenak

Lehen a. Nafarroako Gobernuko Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariari ahalmena ematen zaio foru lege honetan aurreikusitakoa garatu eta betearazteko behar diren egintza eta xedapenak eman ditzan.

Bigarren a. Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefona *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA Urte bat..... 6.200 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa..... 145 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa..... 180 » .	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
---	---